

Arriskuen Analisia



Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko urtarrilaren 28ko 178/2002 Erreglamenduak (<http://data.europa.eu/eli/reg/2002/178/oj>) ezartzen du elikagaien segurtasuneko politikek arriskuen analisia egiteko prozedura bat izan behar dutela oinarri, pertsonen osasun eta bizitzaren babes-maila altua lortzeko helburu orokorra betetze aldera.

Arriskuen analisia elkarren artean erlazionatutako hiru elementuk osatzen dute: arriskuaren ebaluazioa, arriskuaren kudeaketa eta arriskuaren komunikazioa.

- **Arriskuaren ebaluazioa** da arriskuak kualitatiboki eta kuantitatiboki identifikatzeko eta baloratzeko gauzatzen diren jarduketan multzoa. Jarduera horien xedea da, halaber, elikagaietatik datozen agente fisiko, kimiko edo biologikoekiko esposizioak gizakion, animalien eta landareen osasunarentzat izan dezakeen arriskua ebaluatzea eta karakterizatzea.
- **Arriskuaren kudeaketa** alternatiba politikoak aztertzean datza, alde interesdunak kontsultatuta. Horretarako, arriskuaren ebaluazioa eta tartean diren beste faktore batzuk hartzen dira kontuan eta, beharrezkoa bada, prebentzio eta kontrolerako aukera egokienak hautatzen dira.
- **Arriskuaren komunikazioa** da elikagaien arriskuei buruzko informazioaren eta iritzien truke interaktiboa. Truke hori hauen artean egiten da: arriskuaren ebaluazioa eta kudeaketa egiteaz arduratzen diren pertsonak, kontsumitzaileak, elikagaien eta pentsuen enpresak, komunitate zientifikoa eta beste interesdun batzuk. Informazio-truke hori arriskuen analisiaren prozesu osoan zehar egin behar da, eta barne hartu behar ditu arriskuaren ebaluazioaren emaitzen azalpena eta arriskuaren kudeaketarekin lotuta hartu diren erabakiak hartzeko arrazoiak.

Arriskuen analisia Euskadin (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/arriskuen-analisis/arriskuen-analisis-euskadin/>)





Arriskuen Kudeaketa (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/category/arriskuen-analisisa/arriskuen-kudeaketa/>)



Arriskuen Jakinarazpena (<https://elikagaiensegurtasuna.elika.eus/category/arriskuen-analisisa/arriskuen-jakinarazpena/>)

ELIKA . Granja Modelo, z/g . 01192 . Arkaute (Araba) . Telefonoa: 945 122 170 . Faxa: 945 122 171 . berri@elika.eus (<mailto:berri@elika.eus>)